

**2014.11.17**  
**LURRALDE ANTOLAMENDUKO 15. bilerako AKTA**  
A.R., A.G., X.I., D.E., O.A., K.F.

Gai ordena:

- 1- Beko Kaleko Partehartze prozesua
- 2- Goiener
- 3- Ondarea kontserbatzeko dirulaguntzak.
- 4- Balorazio fitxa.
- 5- Bidegorriko obra – Espaloia
- 6- Aurrekontuen errepaso
- 7- Itsasondo “Ekinez Egina”-ko ekintza plana osatu
- 8- Argazkia.

### **1- Beko Kaleko Partehartze prozesua**

Gai honekin lotuta X.I.k proposatu umeen ikuspegia txertatzea Beko Kaleko partehartze prozesuan. Eskolarekin lantzea posible izango litzakela uste dugu. Diputazioari proposatuko zaio.

### **2- Goiener**

K.F. idazkariarekin egon ondoren argi-indarraren kontratu txikiak (erosketa zentralarekin egin ez direnak) Goiener-era pasa daitezke argitu dugu. Beraz aurrera jarraituko dugu gai honekib.

### **3- Ondarea kontserbatzeko dirulaguntzak.**

I.A.k jakinarazi digu Foru Aldundiak natura-ondarea kontserbatzeko atera duen laguntza-deialdirako proposamen bat prestatu dugula, Murumendi aldeko bi partzela erosi eta bertan hainbat ekintza burutzeko (bertako basoa berreskuratzeko). Diru laguntza %100ekoa izango litzateke. Enirio-Aralarren ere beste eskaera bat egin digu, kasu honetan goiko larreetan dauden hezegune batzuk (Alotzan eta Lizeozko zelaian) berreskuratzeko.

### **4- Balorazio fitxa.**

Udal taldetik iritsi den balorazio fitxa bete dugu Lurralde Antolamendu lantaldearen ikuspegitik.

Laburbilduz:

Indarguneak:

- Taldearen dinamika positiboa, erabakitzailea.
- Erabakiak hartzeko lantaldea oso lagungarria da.

Hutsuneak:

- Lantalde honetan lantzen diren prozesuak motelak dira, denboran asko luzatzen dira.
- Udaletxeak diru gutxi dauka inbertsioak egiteko, beti dirulaguntzen menpe.

Lehentasunak:

- Finantziazio herrikoiaaren aukerak ondo aztertu proiektu 'handiak' garatzeko, kooperatiba modun...
- Beko kaleko proiektua bultzatu
- Datozen urte/hamarkadetako proiektuak finkatu (adibidez eskola berria)

Aldaketak:

- Jende gehiago fitxatu beharko genuke.

### **5- Bidegorriko obra – Espaloia**

Azken egunetan zalantzak sortu ziren bidegorriko obran zebrabideetako espaloia zatiekin (espaloia jeitsi dutelako tarte horietan). Aurreikusita dago zebrabideak altxatu egingo direla ibilgailuen abiadura moteltzeko eta horregatik ez genuen espaloia jeisteko beharra ikusten. Badirudi espaloia ez jeistek arazoak ekarriko lituzkela uraren pasoarentzat eta horregatik jeitsi da, uraren pasoa errazteko karreteraren bazterretan. Aurreikusita zegoen bezala zebrabideak altxatu egingo dira eta (oinezkoentzat aldapatxoak jarritz zebrabideko bi bazterretan)

### **6- Aurrekontuen errepassoa**

Lantalde honetatik proposatutako inbertsioen errepasso txikia egin da.

### **7- Itsasondo “Ekinez Egina”-ko ekintza plana osatu**

Ez dugu denborarik izan puntu hau lantzeko. Osatu beharreko puntuak arduradunei pasatuko dizkie K.F.-k.

### **8- Argazkia.**

Azkenik taldearen argazkia egin dugu hurrengo aldizkarian argitaratuko den partehartzearen inguruko artikulu bat osatzeko.